

Euskal AEko I+G gastua %5,6 igo zen 2017an, hazkunderik handiena 2010etik


Dedikazio osoko ikertzaileak 12.608 pertsona dira, eta 2008tik %30,8 gehitu dira

2017an Euskal AEn guztira 1.363,2 milioi euro inbertitu ziren Ikerketa Zientifikoko eta Garapen Teknologikoaren (I+G) jardueretan, aurreko urtean baino %5,6 gehiago, EUSTATEN datuen arabera. Horrek dakar segitzea bigarren urtez jarraian hazten, gastuan izaniko hiru urteko jaitsieren ondoren.

Langile enplegatuak, 18.577 Dedikazio Osoko Baliokidetzan (DOB) 2017an, aurreko urtearen aldean %3,8ko hazkundearekin; ikertzaileak, 12.608 (DOB), %5,8ko hazkundearekin, eta %30,8ko gehikuntza ohargarriarekin 2008tik, kasik 3.000 ikertzaile gehiago.

2017an I+G gastua BPGren %1,85 izan da Euskal AEn, ehuneko 4 ehunen gehiago aurreko urtearen aldean. 28-EBrako behin-behineko datuekin konparatua, Euskal AE europar batez bestekoaren azpitik da, zeina %2,07 baita, nahiz eta ehunen batez gutxitu den bien arteko diferentzia. Espainiarako dugun azken datu eskuragarria 2016koa da, zeinean I+G gastua BPGren %1,19 den.

I+G gastuaren bilakaera, BPGrekiko (%)



*behin-behineko datuak

Iturria: Eurostat eta Eustat. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

Euskal AEko I+G gastuaren %75,1 enpresetan egikaritu zen

Enpresek I+G gastuaren %75,1 (1.023,2 milioi euro) **egikaritu zuten**; %17,4 (237,1 milioi), Goi-mailako Irakaskuntzak; eta gainerako %7,5a (102,9 milioi), Administrazioaren mendeko zenbait erakundek. Aurreko urtearen aldean, Enpresek %5,2 gehiago gastatu dute, Herri Administrazioak %11,8 gehiago eta Irakaskuntzak %4,9 gehiago. Horrek ekarri du Administrazioak pisu handiagoa edukitzea (ehuneko lau hamarren), pisua zeina galdu duten Enpresek (3 hamarren) eta Goi Irakaskuntzak (hamarren 1).

Euskal AEko I+Gko barne-gastua, egikaritze-sekoreen eta fondoek jatorriaren arabera (mila euro). 2017

	Guztira	Administrazio Publikoa	Goimailako irakaskuntza	Enpresak	Irabaziasmorik gabeko erakunde pribatuak	Atzerriatik etorriak
Guztira	1.363.176	457.376	40.777	745.946	4.652	114.424
Enpresak	1.023.215	198.107	398	729.182	1358	94.170
Administrazio Publikoa	102.903	92.990	126	4.464	1.452	3.870
Goimailako irakaskuntza	237.058	166.279	40.253	12.300	1.842	16.384

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

I+G gastuaren **finantzaketan**, portzentajeak aurreko urteetako antzekoak dira. Finantzaketa pribatuak, enpresen bidez, 745,9 milioi euro bideratu zituen ikerketara, guztizkoaren %54,7; %3,7 gehiago 2016koaren aldean, eta lehen diru-iturria izaten segitzen du.

Finantzaketa publikoak, 457,4 milioirekin, guztiaren %33,6 da; %5,8ko gehikuntza eduki du. Goi-mailako irakaskuntzak, 40,8 milioirekin, funtsen %3,0 izan da; atzerriatik 114,4 milioi hartu ziren, %8,4; azkenik, 4,7 milioi, %0,3, irabazi asmorik gabeko zenbait erakundetatik etorri ziren.

Gastuaren eta pertsonalaren bilakaera (DOB) Euskal Aen. 2008-2017

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
I+G Gastuak										
Guztira (Milioi euro)	1.263,9	1.280,9	1.360,3	1.366,2	1.372,9	1.316,8	1.289,8	1.273,2	1.290,9	1.363,2
Urteko gehikuntza (%)	15,9	1,3	6,2	0,4	0,5	-4,1	-2,1	-1,3	1,4	5,6
Pertsonala (DOB)*										
Guztira	15.373	16.690	17.532	17.879	18.682	18.280	18.535	18.217	17.898	18.577
Urteko gehikuntza	6,5	8,6	5,0	2,0	4,5	-2,2	0,4	-1,7	-1,8	3,8
Ikertzaileak (DOB)*										
Guztira	9.640	10.386	11.071	11.283	11.772	11.959	12.030	12.089	11.916	12.608
Urteko gehikuntza	4,6	7,7	6,6	1,9	4,3	1,6	0,6	0,5	-1,4	5,8

*DOB: dedikazio osoko baliokidetzak

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

Langile enplegatuak, 18.577 pertsona Dedikazio Osoko Baliokidetzan (DOB); Enpresetan 13.154 pertsona (guztien %70,8), Goi-mailako Irakaskuntzan 4.140 (%22,3) eta Herri Administrazioan 1.283 (%6,9).

I+G langileen %35,8 emakumeak ziren 2017an, bi hamarren gehiago 2016an baino

I+G dedikazio osoko langileen %35,8 emakumeak ziren, bi hamarren gehiago guztizkoaren gainean. Ehunekorik handienak Herri Administrazioan eta Goi-mailako Irakaskuntzan dira, %54,6 eta %50,4, hurrenez hurren. Enpresetan, %29,4. Orotara, 6.657 emakume izan ziren DOBn, aurreko urtean baino %4,4 gehiago.

I+G gastua egikaritzea sektoreen arabera (%)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Enpresak eta IAGEP	75,8	75,4	75,1	74,7	75,4	75,1
Herri administrazioa	6,3	6,4	6,5	6,9	7,1	7,5
Goi-mailako irakaskuntza	17,9	18,2	18,4	18,4	17,5	17,4

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G

Aurreko urtearekin konparatua, sektoreen partaidetzako ehunekoak, I+G gastuaren guztizkoan, gastuaren egikaritzeari dagokionez, aski antzekoak dira zenbaki handietan, diferentzia zenbait baden arren. Hala, Euskal AEko Enpresek eta Irabazi Asmorik gabeko Erakunde Pribatuek, zeinek egiten duten ikerketa-ahaleginik handiena, hiru hamarren egin dute behera partaidetza-ehunekoan, %75,1eraino. Herri Administrazioak lau hamarren irabazi ditu, %7,5era, eta, azkenik, Goi Irakaskuntzak hamarren bat galdu du, %17,4ra.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62